

EKITEN lehiaketetarako oinarriak 2016-2017 ikasturtea

Helburua

Ikasleen artean enpresa-ekimen berriak sustatzeko eta ekintzailtza bultzatzeko strategiaren barruan, MONDRAGON UNIBERTSITATEAK hiru lehiaketa desberdin antolatu ditu 2016–2017 ikasturterako:

- **Enpresa ideia berriei buruzko XI. lehiaketa**
- **Landa-ingurunearen garapenari buruzko ideien eta proiektuen IX. lehiaketa**
- **Kimu Berri VII lehiaketa. Eguneroko bizitza errazten duten produktu eta zerbitzu berritzaileak.**

Lehiaketen helburuak ondorengoak dira:

- *MONDRAGON UNIBERTSITATEko ikasleen artean izaera ekintzailea sustatzea, sormena, ekimen-bilaketa eta autoenplegua bultzatuz.*
- *Balio erantsia duten produktuak, prozesuak, zerbitzuak edo negozioak sortzeko ideia berritzaileak sustatzea.*
- *Diziplina anitzeko taldeetan lan egitea sustatzea.*

Partaideak

Lehiaketa honetan, MONDRAGON UNIBERTSITATEko gradu eta unibertsitate masterretako ikasleek parte har dezakete, edozein dela beraien jatorrizko campusa. Ikasleek banaka edo taldeka har dezakete parte.

Ikasle edo talde bakoitzak, ebaluaketarako gehienez 3 ideia aurkeztu ahal izango ditu.

Hautaketa

Enpresa ideia berriei buruzko XI. lehiaketan, edozein diziplina akademikoko eta sektoreko ideiak aurkez daitezke, jarduera berrietan, produktu berrietan, zerbitzu berrietan edota negozio-ildo edo -eredu berrietan aurrera eramateko moduko **ekintzailtza-ekimenak** landuko dituztenak.

Landa-ingurunearen garapenari buruzko ideien eta proiektuen IX. lehiaketa.

Landa eremuak aukera ugari eskaintzen ditu ez bakarrik nekazaritza-abeltzaintza sektorearekin zerikusia duten ekintzak abian jartzeko; baita ere herrietako landa garapena sustatuko duten produktu edota zerbitzuak sortuko dituzten enpresa proiektuak abiarazteko.

Edizio honetan, landa ingurumeneko bizi kalitateari garrantzia eman nahi zaio, beraz, esparru honetan kokatzen diren proiektuak positiboki baloratuak izango dira.

Hau da, zerbitzu desberdinen eskaintzaren bitartez, bizitza kondizioak hobetzen lagunduko dituzten ideia eta proiektuak. Garraioa, gizarte zerbitzuak, osasuna, hezkuntza, merkataritza, teknologia berrietara sarrera, aisialdia, kultura, kirola, eta abarri irtenbidea ematen dieten proiektu eta ideiak.

Proiektu guztiak Gipuzkoako Lurraldean kokatuta egon beharko dira eta horretarako, Gipuzkoako landa eremuaren ezaugarriak izan beharko dira kontutan. Hau horrela, ezin ahaztu, bai kostalde eta bai barnealdean, ondoko ezaugarriak dituzten esparruak daudela:

- 2500 biztanle baino gutxiago dituzten herriak.
- Handiagoak diren herrietako landa auzoak.
- Baserri barreiatuz osatutako habitat sakabanatuak.

Kimu Berri VII lehiaketa. Eguneroko bizitza errazten duten produktu eta zerbitzu berritzaileak. Eguneroko bizitza errazten duten edozein diziplina akademikoko eta sektoreko ideiak aurkez daitezke, jarduera berrietan, produktu berrietan, zerbitzu berrietan edota negozio-ildo edo –eredu berrietan aurrera eramateko moduko **ekintzaitza-ekimenak** landuko dituztenak.

Negozio-ideiak **hautatu eta ebaluatzeko honako irizpide hauek** hartuko dira kontutan eta bakoitzaren balioa, ondoan ageri zaion ehunekotan izango da:

- *Ideia*ren originaltasuna eta berritasuna. (%25)
- *Aberastasuna eta lanpostuak sortzeari begira ideiak izan lezakeen eragina.* (%25)
- *Proposamenaren eta hori abian jartzearen bideragarritasuna.* (%25)
- *Taldearen diziplina-aniztasuna eta hainbat titulazio eta fakultateetako ikasleen partaidetza.* (%10)
- *Publikoaren iritzia.* (%15)

Aurkezpena

Lehiaketa **otsailaren 23an irekiko da** eta **ekainaren 13a** izango da proiektuak aurkezteko azken eguna.

Proiektuak <http://innoweb.mondragon.edu> aplikazioan kargatu beharko dira. Aplikazioak, bete beharreko formulario bat dauka eta atal guztiak osatu beharko dira.

Hauek dira aipatutako atal horiek:

- **Proiektuaren izenburua**
- **Egileak**
 - Argi eta garbi jarri taldekide bakoitzaren izena, abizena, egiten ari den ikasketa eta helbide elektronikoa.
- **Produktua-zerbitzua-prozesua**
 - Deskribapen zehatza egin

- **Merkatua**
 - Esparru geografikoa
 - Lehiakideak
- **Partner nagusiak**
 - Zer egin dezakete partner-ek zuk baino hobeto edo merkeago eta ondorioz, zure negozio ereduak aberastu?
- **Aktibitate nagusiak**
 - Zein aktibitate nagusi garatu behar dira zure negozio ereduak?
 - Nola burutuko dituzu?
- **Baliabide nagusiak**
 - Zein baliabide nagusi behar ditu zure negozio ereduak?
- **Balio proposamena**
 - Zein arazo konponduko dugu?
 - Zein beharri erantzuten diogu?
 - Zein etekin ekarpen egiten ditu?
- **Bezeroekin harremana**
 - Zein motatako harremana izan eta mantenduko duzula espero dute zure bezeroek beraiekin?
- **Kanalak**
 - Zein kanal edo bitartekariren bitartez jarriko zara zure bezeroekin haremanetan eta atendituko dituzu?
- **Bezero lagina**
 - Nori zuzentzen gara?
 - Zein lagin hartzen dugu kontutan?
 - Zein dira lehentasuna dutenak?
- **Koste egitura**

Hortaz gain, **ezinbestekoa izango da proiektua** ebaluatua izan dadin, **gehienez 3 minutuko luzera izango duen bideo bat** grabatzea eta bere URL-a adieraztea. Bideo horretan, proiektua aurkeztu beharko da eta *publikoaren iritzia*, bideoan oinarrituta puntuatuko da. **Poster bat ere egin beharko da**, www.mondragon.edu/ekiten helbidean aurkituko duzuen ereduak jarraituz.

Talde bakoitzak, bere sarean jarri beharko du bideoa eta ezagutzera emateko ardurak hartu. "Atsegin dut" guztiak kontatuko dira "publikoaren iritzia" puntuatzerako orduan. **Kontaktak, ekainaren 20an** goizeko lehenengo orduan egingo da.

Epaimahaiak, **ekainaren 21ean** egingo du esleipena eta sari banaketa, **ekainaren 23an** izango da.

Proiektua epaimahaia ebalua dezan, derrigorrezkoa izango da formularioa beteta, bideoa grabatuta eta posterra eginda eta INNOWEB aplikazioan jarrita egotea, bestela, automatikoki, ebaluaziotik kanpo geratuko da.

Saria jasotzeko, beharrezkoa da taldekide bat gutxienez, sari banaketan egotea. Irizpide honetatik libre geratzen diren bakarrak, lab-ak Madril, Bartzelona edo Balentzian dituztenak dira.

Epaimahaia eta Erabakia

Lehiaketako **epaimahaia** osatuko dute:

- *MONDRAGON UNIBERTSITATEKO EKITEN Programaren Batzordeak*
- *SAIOLAN enpresa eta berrikuntza zentroak*
- *GAZTEMPRESA Fundazioak “Enpresa ideia berriak” arloan,*
- *LANDAOLA Gipuzkoako Landa Garapen Elkarteen Federazioak, “Landa-ingurunearen garapen iraunkorraren” modalitatean,*
- *KIMU BERRIk Eguneroko bizitza errazten duten produktu eta zerbitzu berritzaileak lehiaketan*

Ebaluatzeko eta erabakitzekeo prozeduran ondorengo pauso hauek emango dira:

- *EKITEN programaren Batzordeak, hautaketa eta ebaluazio irizpideak jarraituz, banaka aztertuko du proposamen bakoitza eta arlo bakoitzerako hiru proiektu aukeratuko ditu bakoitzari dagokion tokia adieraziz, lehenengoa, bigarrena eta hirugarrena.*
- *Sariren bat banatu gabe gera daiteke proiektuek ez badute behar besteko maila.*
- *Sariak banatuko dira*

Partaide guztiei jakinaraziko zaie beraien proposamenaren emaitza.

Sariak

Hiru sari banatuko dira “**Enpresa Ideia Berrien**” alorrean aurkeztutako ideia onenen artean:

LEHEN SARIA: 1.000 euro taldearentzat

BI SARI OSAGARRI: talde bakoitzak 500 euro jasoko ditu

Era berean, beste **hiru sari** banatuko dira “**Landa Ingurunearen Garapenari buruzko Ideia eta Proiektuen**” alorrean:

LEHEN SARIA: 1.000 euro taldearentzat

BI SARI OSAGARRI: talde bakoitzak 500 euro jasoko ditu

Eta beste **hiru sari** banatuko dira “**Kimu Berri lehiaketan. Eguneroko bizitza errazten duten produktu eta zerbitzu berritzaileak**”:

LEHEN SARIA: 1.000 euro taldearentzat

BI SARI OSAGARRI: talde bakoitzak 500 euro jasoko ditu

Ebaluatzaile taldeak baloratuko du lehen saria lortu duen proiekturen batek bideragarritasun nahikoa duen, eta hala bada, bere garapenerako **urtebeteko EKITEN beka** jaso dezake.

- *Epaimahaiaren erabakia apelaezina da.*
- *Proposamenak bidaltzen dituenak lehiaketako oinarriak onartzen ditu.*
- *Partaideek beharrezkotzat jotzen duten dokumentazio osagarria erantsi ahal izango dute.*
- *Ideiak lehiaketara aurkezteak ez ditu egileak horiek gauzatzera edo abian jartzera behartzen.*